



## OINARRIZKO EKINTZAK

- Gure enpresaren ekintza nagusia hurrengo da: TOO GOOD TO GO aplikazioan janaria erosi, gure tabernako sukaldean eraldatu eta plater bat sortuko dugu. Ekintza hauek burutzeko, gure enpresak **ez du azpi kontraturik egingo**, lehenengo enpresa jabeei lana egokituko diegu, behin hau egiterakoan **lan posturik soberan baldin badago langileak kontratatuko ditugu**.

1. TOO GOOD TO GO aplikazioan **janaria bilatu**. Bi aukera daude:
  - **Janaririk ez** egotea. Kasu honetan tabernan **zerbitzu normala** emango genuke, **oinarrizko elikagaiak erosiko** genituzke jatetxearen zerbitzua ematen jarraitzeko. Honetaz aparte, beste egun batzuetako **soberakinak saltzen** jardungo genuke
  - **Janaria egotea**. Hurrengo pausuan azalduko dizuegu zer egingo dugun.
2. Behin janaria erositakoan, **weborrian argitaratuko** ditugu lortutako produktuekin **zein errezeta egin ditzakegun**. Hemen ere bi aukera ditugu:
  - **Jendeak ez aukeratzea**. Kasu honetan bi aukera edukiko genituzke: guk nahi ditugun errezetak sortzea edo beste baterako janaria gordetzea
  - **Jendeak aukeratzea**. Hurrengo pausuan azalduko dizuegu zer egingo dugun.
3. Gure sukaldariak **salduko ditugun produktuak sortzea**
4. Gure produktuak eskuragarri jartzea. 2 aukera dituzte **erosteko edo erreserbatzeko**:
  - Tabernan
  - web orrian
- **Tabernan** bi aukera dituzte:
  - **Bertan erosi eta kontsumitu**: tabernara etorri, nahi duten produktua hautatu eta bertan kontsumitu produktua
  - **Erreserbatu**: kasu honetan produktuak erreserbatuko dituzte, momentuan ordaindu eta gero bila etorri beharko diren ordua zehaztuko dugu.
- **Web orrian** ere erreserbatzeko aukera izango dute. **Ordaintzeko hiru metodo** dituzte:
  - **Paypalen** bidez ordainduko da.
  - **Bizumekin** ordaintzeko aukera egondo da ere.
  - **Kreditu-txartel** bidez ordain dezakete



5. Bezeroek haien **produktuak jasoko** dituzte
6. **Egunaren bukaeran** eduki ditugun soberakinak beste egun batean saldu behar ezin baditugu, taberna itxi baino ordu erdi lehenago, **behar dutenei** soberakin horiek emango dizkiegu.

Hona hemen Daily Food-en **flujograma**:

